

Haurra



PAULINE GUELLE
ZUZENBIDE PUBLIKOAN
DOKTOREGAI ETA
IRAKASLEA

Orain hasiko dira Donostiarako bisitak, lehen bilkura bideokonferentziaz izan arren, besteak fisikoki egitea nahiko luke. Behintzat, Euskal Herrian dena egiten ahalko du. Nahiz eta klinika ez izan bere muga instituzionalaren aldean, Herrian izateak lasaitzen du. Aldiz, ekonomikoki galdegina zaion engaiamenduak bisaia uz-kurtzen dio. Ernalketak funtzionatzen ez balu, zer ? Beste 900 euro? Ezin.

Urteak haurrak desiratzen dituela. Horrez gain, urteak ez duela bikoterik atzematen. Alta, gazte gaztetik argi du ama izan nahi duela. Urtebetetzeak joan arau, lagunen haurdunaldien berriek bihotza porroskatzen diote. Bestearen zoriontzeko gaitasuna badu ere, bere errealitate gordinaren aitzinean jartzen du. Erabaki berri du ez duela gehiago itxoinen. Garrantzitsua zaio lagunen ber momentuan bere umea hezte; hots, azkena ez du izan nahi, eta oraino guttiago “haurrik ez duena”. Hala ere, haurdunaldiaren prestaketa, erditzea eta hezte prozesu amaigabe hura bakartasun hutsean ez du bizi nahi.

Kolektiboaren aukera honek paradoxa handia sortzen dio: ez badu bikoterik, bakarrik heziko du. Sare sozialen bidez izena eman zuen “ko-guraso” izateko webgune batean. Hor aurkitu zuen lista bat, izenak eta aukerak. Haurraren

beste gurasoa aukeratzen ahal duzu. Azkenean, egun gutti pasa zituen lista horri so. Ez zion erakargarritasun berezirik sortzen. Gurasotasuna arrazionalizatzeko eta partekatzeko manera hori ez zitzaioan komeni. Interes propioari lotzen zion desmarta, hala nola denbora eta arduren banatzea. Hori, ezezagun batekin egin? Gaizki pasatzeko arriskua hartu? Ez, bide hau baztertuz joan zen.

Ondorioz, lagunen itzulua hasi zen egiten. Batek lagunduko zuen urrats administratiboetan. Donostiara egiteko bidaiak beste batekin eginen zituen. Azkenik, erditzeko momentua hirugarren batekin eginen zuen. Aitzinetik rol guziak banatuak izan ziren; orain testua ikasi behar zuten. Bakartasuna baztertuz, ama batzuk baino askoz hobeto segitua izanen zen. Maitasun kolektiboa helburu, haurraren sortzeak denak inplikatu zituen. Familia nukleoak eskainitako estruktura eta filiazioa ukatuko zituen. Desmarta kontziente eta aske honek sekulako energia galdeginen zion. Alde batetik amatasunari lotutako kezak eta beldurrak, baina batez ere osasuna eta administrazioak uztartzen zituen eginbehar bereziak. Azkenik, lagunei esku artean emandako konfiantza guziaren parioak zion energia ustiatze hau berriztagarri bihurtu. ●

Polonia



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Duela bi aste TV3.cat telebistan *Polonia* emankizun sarkastikoaren 15. urteburua handizki ospatu zuten. Kataluniako, Espainiako eta bakarretan Euskal Herriko bizitza eta gertakari politikoak karramixkatzen dituzte gogo onez, ahoan bilorik eta beldurrik gabe. Guztiak pasatu dira: Generalitateko *president* ezberdinak, Espainiako erregeak, Rajoy eta Sanchez, Macron, herritar arruntak, diputatuak, idazleak, ETAkoak 2011n, Patxi Lopez eta Iñigo Urkullu ere bai. Badu bulta bat orain aste oroz ikusten dudala. Irri zirrista bat jauz arazten dit beti.

2017ko urriaren leheneko indepen-

dentziaren bozka-eguneko psikodrama *Polonia*-ren zirrika eta trufa artean jarraitu nuen. Esketxak garratzak dira, baina badute funts ikaragarria, politikari katalanen ekinbideak jorratzen dituztenean bereziki. Batzuek menturaz barrera mingarra dukete, baina sumatzen da mediterraneo eskualdean badela nor bere buruaz burlatzeko ahalmen bat, atlantikoaren lehor hauetan ez duguna. Hondarrean, politikaren faborez ari direla adierazten du elkarrizketa batean Toni Soler *Polonia*-ren sortzaile eta eramaileak.

Kitzika latx horrek on egiten du. *Datsegit.* ●